MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA 2005eko otsaila 37. zenb.

ni ere bai!

2005 URTERAKO UDAL AURREKONTUAK ONARTUTA

KALAUTXI

ATHLETIC CLUB BILBAO

markos

AMADO

Mutrikuar bat lehoien harrobian

Agustindar mojei

agur

IKASTOLAREN
matrikula kanpaina
otsailaren 14tik 25era

.....Euskal irakaskuntzan

HAZI HEZI BIZI

Goizeko Izarra Ikastola
Tel. 943 603675 - Faxa 943 604181 - P.E.: Matrikula@ikastola.net

Editoriala

Uste genuen betiko egongo zirela gure artean, baina duela hilabete batzuk joatekoak zirela entzun genuen. Gero, kamioiak trasteak eramatera etorri ziren. Halako batean, beraiek adierazi ziguten, estanpa baten bitartez, bazihoazela. Gotzainaren bisita ere jaso zuten beren agurraren mezatan. Bai, Komenduko mojak badoaz, ez dira betiko izango gure artean. Zenbat errezu, zenbat kantu, zenbat otoitz isil Mutrikuren eta mutrikuarron alde!

Aurrerantzean, Nazareno eguna, San Agustin eguna, San Inazio eguna edo Santa Rita eguna ez dira berdin-berdinak izango gure herrian. Hala ere, seguru gaude, dauden tokian daudela ere, Mutriku eta mutrikuarrok oso presente izango gaituztela beren otoitzetan egun horietan eta gainerako guztietan ere bai. Hala bedi. Guk, Kalaputxiko lagunok, gure ekarpen txikia egin nahi diegu Agustindar mojei eta hilero-hilero Kalaputxi pare bat bidaliko diegu dauden tokira Mutrikuren berri izaten jarrai dezaten, hori eta gehiago ere merezi dute eta.

Kalaputxi hilabetekarixa

Argitaratzailea:
Karenka komunikazio elkartea
20830 MUTRIKU

Telefonoa: 943 60 34 68
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Laguntzailea: Mutrikuko udala
Tirada: 1.900 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati.
Banaketa: Mutrikuko Institutuko azken mailako ikasleak

Mutrikuko udala | Gipuzkoako Foru Aldundia | Eusko Jaurlaritza

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzearren

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6
Bi hitzetan	9
Komikixa	10
Kale inkesta	11
Euskeria	12
Karenka	14
Kulturia	16
Lan giruan	18
Gizartia	20
Osasuna	22
Zorion agurrak	24
Argazki zaharrak	25
Agenda	26

2005 urteari ateak zabaldu dizkiogu eta gure aldetik hobetzen joateko ahaleginak ez dira bukatu. KALAPUTXI hilero jasotzen ez duenik ba omen dago eta hori ez gertatzen saiatuko gara. Hala ere etxeren batetara iritsiko ez balitz, udaltzaingoan ale bat eskura dezake interesa duenak.

Honekin batera kanpoan bizi den norbaiti bidali nahi iza-nez gero, hona urteko harpidetza:

HARPIDETZAK
2005 URTERAKO TARIFAK

URTE OSORAKO
Estatua: **15 euro** Europa: **30 euro**
Beste herrialdeetara: **50 euro**

BIDALKETA ESKATZEN DUENA

Izen-abizenak: .....
Helbidea: .....
Posta kodea: ..... Herria: .....
Telefonoa: .....

KALAPUTXI JASOKO DUENA

Izen-abizenak: .....
Helbidea: .....
Posta kodea: ..... Herria: .....
Herrialdea: .....

2005 urterako tarifak: Estatura: 15 euro Europara: 30 euro Beste herrialdeetara: 50 euro
Dagokion diru-kopurua beheko kontu korrentean sartu **zeure izenean** eta txartel honekin batera utzi gure buzoian.
KUTXA k/k zenb.: 2101 0056 01 0123564866

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia (Osakidetza)	943 60 43 00
DYA Mutriku	943 60 33 17
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Odol emaleen taldea	943 60 39 30
Javier Otxagabia botika	943 19 50 26
Lon Apraiz botika	943 60 32 50
Larrialdiak	943 461 111

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaltzaingua	943 60 70 48
	679 16 25 00
Udaletxea	943 60 32 44
Turismo bulegoa	943 60 33 78
Posta zerbitzua	943 60 30 44
Bake epaitegia	943 60 32 44
Epaitegia	943 60 70 49

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola	943 60 36 75
San Miguel ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 36 27
Udal euskaltegia	943 60 30 94
Musika eskola	943 60 37 80

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua	943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza	943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza	943 60 38 71
Anaiarte jubilatuen egoitza	943 60 30 83

ZEBITZUAK

Pesa	902 10 12 10
Eusko Trenbideak	902 54 32 10
Loiuko aireportua	905 50 50 05
Hondarribiako aireportua	943 19 23 47

BESTE BATZUK

Liburutegia	943 60 41 82
Kiroldegia	943 60 31 75
Frontoia	943 60 45 44
Gasolindegia	943 60 32 10

Autobusak

MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

Mutrikutik	Astegunak	7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
	Zapatuak	10:00 / 16:30
	Jai egunak	10:00 / 19:30
Donostiatik	Astegunak	8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
	Zapatuak	11:30 / 19:30
	Jai egunak	11:30 / 20:30

MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

AUKERAK:

1. BIZKAIBUSen autobusa hartu Ondarroan:
   1- 6:10ean hasi eta 20:10 arte orduro.
   2- 6:40ean hasi eta 19:40 arte orduro.

2. PESAren autobusa hartu Eibarren, haraino Euskotrenen

ONDARRUA - MALLABIA - ONDARRUA

Ikus Kalaputxi 13. alea

Trenak

Tren guztiak, adierazitako lehenengo ordutik aurrera, **ORDURO**

DEBA – DONOSTIA – DEBA

Debatik 6:44-7:44-…-21:44
Donostiatik 5:47-6:47-…-20:47
Jai egunetan 8:44etan hasiko dira

DEBA – BILBO – DEBA

Debatik 6:43 -7:43 -…-20:43
Bilbotik 6:00 -7:00 -…-20:00
Jai egunetan 8:43etan hasiko dira

DEBA – EIBAR – DEBA

Debatik 6:43 / 7:43 / … / 21:43
Eibartik 6:13 / 7:13 / ... / 21:13
Jai egunetan, 8:43etan hasiko da
Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

Zaintzako Botikak (Mutriku – Deba)

URTARRILA	
1etik 6ra	Barrera (zapatu goizean, **Jabier Otxagabia**)
7tik 13ra	**Jabier Otxagabia**
14tik 20ra	Portillo (zapatu goizean, **Lon Apraiz**)
21etik 27ra	**Lon Apraiz**
28an	Barrera (zapatu goizean, **Jabier Otxagabia**)

MARTXOA	
1etik 6ra	Barrera (zapatu goizean, **Jabier Otxagabia**)
7tik 13ra	**Jabier Otxagabia**
14tik 20ra	Portillo (zapatu goizean, **Lon Apraiz**)
21etik 27ra	**Lon Apraiz**
28tik 31ra	Barrera (zapatu goizean, **Jabier Otxagabia**)

Tel: OTXAGABIA: 689 58 57 59 APRAIZ: 630 05 50 97
PORTILLO-ZALDUEGI: 669 26 22 01

ERAIKUNTZAK
SAGARMIÑA, S.A.
ETXEGINTZA ETA BERRIKUNTZA
San Agustin kalea, 11 - Tel eta Fax 943 60 41 89
Posta kutxa: 71 - MUTRIKU (Gipuzkoa)

autumak

Gogoratu gutun guztiek agertu behar dutela nork idatzita datozen, nahiz eta ezizenez, inizialez edo bestela sinatuta argitaratu. Ez da argitaratuko norena den agertzen ez duen gutunik.

Utzi esateko duzuna Barrenkalea, 12 - beheko buzoian edo kalaputxi@topagunea.com helbidean.

KLI-KLA BIRZIKLA! BAINA OLIOAREKIN ZER EGINGO DUT?

Eta zuk zer egiten duzu Kiotoko protokoloaren alde?… zuk zer erosten dezu bilgarriak ala produktuak?… birziklatzea zure esku dago… honelako esaldi, propaganda eta kanpaina asko ditugu inguruan, denak onerako, hau eta gehiago egin behar dela argi baitago. Baina denon artean eta adarrik jo gabe!
Birziklapenaren kontuan etxean sailkapena egin eta dagokien edukiontzietan lagatzea nire ardura da. Baina zer gertatzen da sailkatutakoa kamioi berdinean sartu eta eramaten badute? Hau noren ardura da? Zer gertatzen da etxean olioa bildu arren gero hileko hirugarren asteko ostegun goizetan lanean zaudelako ezin baduzu olioa laga? Ez al dago aukerarik beste ordutegiren batean beste nonbait lagatzeko?…

Asko daukagu egiteko, hobetzeko… denon ahalegina eta inplikazioa beharrezkoa da… herritarrona, agintariona…

A.A.

EAJK EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AGIRIAREN TRAMITAZIOA GALARAZI DU

Udalbatzak EHNA tramitatzea onartu zuen 2002an, baina aspaldian Udalak ez du erabaki hori bete. Joan den asteko astelehenean Mutriku Eginez alkatearekin batu zen, larunbatean EHNAk tramitatzeko asmoaren berri eman eta modua adosteko. Bi ziren aukerak: Udalak berak tramitatu edo MEko hautetsiok geure kontura. Alkateak eguaztenean erantzuteko hitza eman arren, ez zuen bete. Erantzunik ezean, Udalaren esku utzi gabe, geure asmoari heldu genion. Baina, barikuan aguazilaren deia jaso genuen Udaletxean egiteko baimena ukatuz. Bezperan! Hiru ziren aukerak: 1, tramitatu ez; 2, EAJk proposatuta bezala, Zabielen egin; 3, alkatearen aginduari entzungor, udaletxean bertan saiatu. Helburua ahalik eta EHNA gehien egitea denez, arazoak ekiditeko, Zabielen egitea erabaki genuen. Zapatu goizean tramitatzeko paper bila joan eta udaletxeko ate guztiak barrutik itxita! Guretzat eta herri guztiarentzat, udal-langileentzat ere bai! Beraz, agiria egitera etorritakoak esku hutsik etxera! Herritar horiei barkamena eskatu nahi diegu eta jakinarazi hilero, 2. zapatuetan tramitatuko ditugula. Bestetik, EAJk udaletxeko ateak ixteko erabaki antidemokratiko prepotentea salatzen dugu. Herritarron eskubideak eta udalbatzaren erabakiak errespetatzea nahitaezkoa da, gustatu ala ez.

Rafa Oianguren, Markel Arizmendi, Izaskun Osinalde eta Lander Elezgarai, Mutriku Eginezeko udal-hautetsiak

EUROPARI BAI/EZ? NIK NAHIAGO EUSKAL HERRIARI BAI/EZ?

Etzi hauteskundeetara deitu gaituzte. Zertarako diren ez dakigun hauteskundeetara. Berriz ere gurekin gogoratu dira. Eskerrik asko. Zertarako, ordea, bai edo ez esan ezagutzen ez dugun gai baten inguruan? Azken boladan, saltaka eta presaka dabiltza Europaren alde onak eta Europaren alde txarrak nabarmentzen gure baiezkoa edo ezezkoa lortzearren. Europako konstituzioa zer den ba al dakigu, bada? Honelakoetan, arkume itxura handiagoa ikusten diot neure buruari, artzain lanetan dihardutenei segika.
Guk Europaz ez, baina hurbilagoko beste gai askori buruz iritzi sendoagoak dauzkagula seguru nago, baina tamalez horien inguruan ez digute ezer galdetzen. Urrutira joan gabe, ez digute galdetzen, badaezpada beharbada, herri izan nahi dugun, Euskal Herri izan nahi dugun. Zalantzarik ez dut, baietzerako zein ezetzerako, jendeak argiago izango duela gai hori Europakoa baino.
Europa batu bat lortzearren urte asko eta asko pasatu dugula esaten digute, bai, baina zenbat eta zenbat urte pasatu dugu, guk orain eta gure lehengoek lehenago, Euskal Herri batu bat lortzeko? Hori, jakina, ez zaie axola europazale berriei.
Domekan bai ala ez bozkatzera joango naiz, herri honek Europako konstituzioaren aurrean esan zuena egunen batean erabiltzen denean ez dadin esan, Espainiako konstituzioa bozkatu zutenean esan zuela esaten duten bezala, baietz edo ezetz esan zuela, hori bai, abstentzioari kasurik egin gabe.
Hauteskundeak domekan eta astelehenean Europaz ahaztu eta Espainiaren batasun hautsi ezinaren diskurtsoari helduko diote berriz ere europazale irekiek, Pirineoetatik haratagoko muga guztiak ireki nahi dituztenek, hori bai, barruko muga guztiak ondo kalkulatutako Konstituzio itxi baten aitzakian itxita.
Astelehenean ere Europaren barruko Euskal Herri batu bat aldarrikatzen jarraituko dugu baina... galdetuko digute?

ANDIKO

PLAZATIKAN ATXUKALERAINO

Herrian paraje ederrak ugari ditugu. Hurbil batzuk, urrunago besteak, paraje ederrak benetan. Batzuetara jende gehiago joaten da eta besteetara gutxiago; batzuetara gehiagotan joaten gara eta besteetara gutxiagotan. Paraje ederrak guztiak.
Beharbada, paraje ederrenetako bat Atxukale dugu, endemas egin berri den parke berria egin ondoren. Haraino jende asko joaten da eta askotan, gainera. Joaten dira marinel zaharrak itsasoari begiratzera, joaten dira gaztetxoak elkarri kontutxoak esatera, joaten dira parranderoak gaua amaitzera... Baina, zoritxarrez, txarangak eta banda eta txistulariak ez dira heltzen Atxukalera.
Zein ederra izango litzatekeen herria girotzeko musika-talde horiek Atxukaleraino ailegatuko balira. Horrela, beren doinu bikainez moila aldea, Samikoila aldea eta Irixarre aldea ere alaituko lituzkete, bertan dauden marinel zaharrak, gaztetxoak edo parranderoak animatzeaz gain.
Ea, bada, hurrengo kalejiran gure herriko txoko ederrenetarikoa den Atxukalerekin gogoratzen diren gure herriko musikari bikainak.

M. Angelita Osoro

«Geure egitasmoetan hasi gara aurten»

Urteroko eginbeharra denez, urtarrilean udal ordezkariek 2005 urterako aurrekontua prestatzen jardun dute. Otsailaren 3an egindako udalbatzan onartu zen 5.932.429,69 euroko aurrekontua, lehengo 987.073.246 pezetakoa, EAJren aldeko botuez; EA abstenitu egin zen eta Mutriku Eginezeko ordezkariak aurrekontuaren aurka agertu ziren.

Aurrekontua jasotzen duen liburua esku artean hartuta, lerroak eta lerroak, zenbakiak eta zenbaki gehiago ikusi ditugu, hitz arruntak eta hitz konplexuak, kopuru handi-handiak eta kopuru xumeak. Betidanik esan izan da zenbakiak hotzak direla, zenbakiek berez ez duten azalpena eskatzen dutela. Guk horixe egin dugu, Alkate Estanis Osinalderengana eta Ogasun arduradun Josebe Astigarragarengana jo zenbaki horiek interpretatzen lagun diezaguten.

Nola laburtuko zenukete 2005 urterako aurrekontua?

Labur esanda, zorroztasunez jokatuta gauzatu dugu Mutrikuko udalaren aurrekontua 2005 urterako. Ezaugarri nagusiena izan daiteke udalaren diru sarrera arrunten kopuruak gastu arruntaren kopurua estaltzeko balio izatea. Hortik aurrera, egindako gastu planteamenduak oso presente izan du egin beharreko gastuari lotutako dirulaguntzak izatea.

Mutrikuren ezugarriak kontuan hartuta, diru sarrera iturriak oso urriak dira eta ondo pentsatu behar da zenbat diru jasoko den zenbat gastatu nahi den aztertu aurretik. Erraza litzateke diru mordo bat jasoko dugula agertzea eta gastua horren arabera aurreikustea, baina gero uste baino diru gutxiago jasoko balitz... Hori kontuan hartuta, zuhurtzia handiz jokatu dugu, aurrekontuen egonkortasunaren legea aintzat hartuta.

Zein izan da udalaren aurrekontua prestatzeko jarraitutako bidea?

Gobernuko talde garen aldetik, 2005 urterako aurrekontuaren aurrerapen bat egin genuen eta hori beste udal ordezkariei eman. Gaia Ogasun batzordera eraman aurretik, haiekin batzar bat egin genuen egindako proposamenaren inguruan hitz egiteko eta beren jarrera ezagutzeko. Handik udalbatzara eraman zen, plenora, eta hantxe onartu zen.

Zuentzat ohizkoak izan daitezke baina, irakurleari argi piska bat ematearren, gogoratuko ditugu udalak dituen sarrera nagusiak zeintzuk diren?

«EGITASMO NAGUSIENAK: EGUNETA MUSIKA ESKOLA, MERKATU PLAZA, TXURRUKA 2005»

Kapituluka hastea litzateke zuzenena, baina galtzeko arriskua kentzearren, esan behar da udalaren diru sarrera nagusiak betikoak direla, hau da, batetik, udalak tasa eta zerga zuzenen bidez jasotzen duena eta, bestetik,

udalaren gainetik dauden erakundeek ematen dutena, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak. Hala ere, esan behar da diru hori gauza ezberdinetarako datorrela; batetik, gastu arrunterako dirua dator eta, bestetik, inbertsiotarako dirua. Hortik aurrera, udalak bankuei mailegua eskatzea ere badauka eta geuk ere eskatuko dugu aurreikusitako inbertsioei aurre egiteko, izan ere, inbertsiotarako emandako dirulaguntzek, Izartuk adibidez, inbertsioak egiteko dirua aurreratzea eskatzen dute.

...eta gastu nagusiak zeintzuk izaten diren?

Diru sarreren inguruan esandakoa esan ahal dugu hemen ere. Gastua ere bi multzo nagusitan banatzen da: batetik, gastu arrunta deitzen dioguna, langileriak zein ordezkaritza politikoek, udalaren azpiegitura guztiek eta elkarte ezberdinei ematen zaizkien dirulaguntzek hartzen dutena; bestetik, inbertsiotarako erabiltzen dena. Bi multzo nagusi horiez gain, aurrez eskatutako maileguei ere aurre egin behar zaie dagozkien interesak eta amortizazioak ordainduta.

Azken urteetan asko hitz egin da udalaren zorpetze mailaren inguruan. Gaur egun nola dago datu hori?

Legealdi honetako lehenengo aurrekontua egitea egokitu zitzaigunean Foru Aldundiarekin konpromisoa hartu genuen bost urteko epean udalaren egoera ekonomiko-finantzieroa egokitzeko, Aldundiko Ogasun sailak adierazitako ildoetara ekartzeko. Zalantzarik ez, konpromiso horren ondorioz, udalaren zorpetze maila txikitzea lortu nahi da.

Iazko urtea amaituta, zorpetze maila hori %16,47n dago, aurreko urteko %15,30ekiko igo egin da hortaz, udalak aurre egin behar dien maileguen amortizazioa ordaintzea tokatu delako, besteak beste.

Zeintzuk izango dira aurten gure herrian egingo diren inbertsio aipagarrienak?

Aurreko urtean lehendik zetozen proiektuei jarraipena ematea erabaki genuen eta diru baliabide urriengatik ezin izan genuen haruntzago begiratu. Aurten, ordea, geure egitasmoetan ere hasiko gara. Diru kopuru handia gorde da inbertsioetarako erakundeetatik, batez ere Eusko Jaurlaritzatik, dirulaguntza handiak lortu direlako. Horrela, bada, aurtengorako aurreikusitako egitasmo aipagarrientzat hauek aipa daitezke: Egunetan musika eskola egitea, Merkatu plaza berria egitea, Hirigune historikoaren birgaitzeaz arduratuko den elkartearentzako lokala egokitzea, udaletxearen berrikuntzarekin amaitzea, lur azpiko kontenedoreak jartzea, zenbait baserritarako bideak konpontzea, Astigarribian antena ipintzea...

«DIRULAGUNTZA ASKO LORTU DA INBERTSIOTARAKO»

Baina horiek nagusienak izanda ere, inbertsio txikiagoak baina garrantzitsuak ere egingo dira. Adibidez, Arau subsidiarioen berrikusketarekin amaitu, ikastolan gas naturala sartu, San Migueleko kanpandorrean konponketak egitea, kiroldegian hobekuntzak egitea...

Inbertsio horiez gain, udalak herritarrei igogailuak jartzeko eta fatxadak zein teilatuak konpontzeko ematen dizkien laguntzak ere hor daude; horiek ere inbertsiotzat hartu ahal ditugu.

Udalak erabaki al du hirugarren mundurako %0,7 gordetzea?

Askotan esaten da udalak ez duela diru hori gordetzen, baina urtean zehar sortzen diren ekimenak lagunduz egiten da helburu horretarako bidea. Kontua ez da honenbeste diru ematea proiektu edota elkarte bati. Batzordeen bitartez banatzen diren laguntzak hor daude eta gero, baita ere, edonoiz gerta litezkeen ezbeharren aurreko laguntzak, urrutira joan gabe, adibidez, iazko tsunamiaren ondoriozkoa. Beharbada udalak ez du emango kopuru zehatz hori, baina udalaren egoera kontuan hartuta, esan daiteke ahalegina egiten dela.

Aurten urte berezia izango da Mutrikun, hainbat urteurren ospatu behar direla eta. Horiek ere izango zuten toki bat aurrekontuan...

Aurten Cosme Damian Txurruka hil zela 200 urte beteko direnez, hainbat eta hainbat ekitaldi antolatuko dira eta, jakina, horiek toki garrantzitsu bat hartu dute aurrekontuan. Oraindik egitaraua lantzen ari bada ere, esan daiteke Mutrikuz gaindiko dimentsioa eman nahi zaiola gaiari, hala merezi duelakoan.

Bestalde, Gure Ametsa dantza taldeak ere 40. urteurrena izango du aurten eta hori ere ez da ahaztu aurrekontua prestatzean. Kirol talde batzuek ere badute urte seinalatua aurtengoa eta udala hortxe egongo da, jakina.

Honenbestez, eman diogu errepasotxoa udalak 2005 urterako onartu duen aurrekontuari, irakurleari zerbait gehiago jakiteko aukera eman diogulakoan. Ea, bada, aurtengo diruek zenbateraino ematen duten!

2005eko AURREKONTUA: HAINBAT HAUSNARKETA

Aurrekontuak direla eta, lerro hauen bitartez Mutrikuko herriaren aurrean agertu nahi dugu horiek onartu ziren udalbatzan agertu genuen iritzia. Iritzi hori bi lerrotan banatu nahi dugu, batetik, aurrekontuak diseinatzeko erabili den dinamikari lotuta eta, bestetik, aurrekontuen edukiari buruzkoa.

Hurrengo urtean udalak erabiliko duen dirua nola banatuko den, zenbat banatuko den erabakitzea iruditzen zaigu udalak urtero hartu beharreko erabaki garrantzitsuenetako bat dela. Hori horrela izanda, gure ustez, udal ordezkari guztien parte hartzea izan dena baino garrantzitsuagoa izan beharko litzateke.

Gobernuan dagoen taldeak aurrekontuen aurrerapena prestatuta, batzar bat egin zen udaleko talde politikoak elkartuta, talde bakoitzak aurrekontuen inguruan esateko zituenak agertzeko. Guk urtarrilaren 26ko batzar horretan gure aldarrikapenak egin genituen. Batzar horren ostean Ogasun udal batzordea egin zen eta han ikusi zen gure aldarrikapenak ez zirela ezertarako ere aintzat hartu.

Iruditzen zaigu aurrekontuak prestatzean, Gobernuko taldeak iniziatiba eta erabakimena hartu arren, udalean ordezkaritza dugun beste taldeoi ere entzun behar zaigula eta, jakina, gure hitzari arreta piska bat jarri behar zaiola, azken baten gurea ere herriaren hitza da eta.

Aurrekontuen edukiari dagokionez ez gara sartuko puntuz puntu azterketa egiten baina esango dugu gure aldarrikapenak aintzat ez hartzeko aitzakia nahi adinako dirutzarik ez izatea izan zela. Iruditzen zaigu ia sei milioi euroko aurrekontuan gure eskariek ez luketela eragin handirik sortuko.

Aurrekontua onartzearekin batera Mutrikuberriri buruz hartutako erabakiarekin ados ez gaudela ere esan behar dugu, ez erabakiaren muinarekin, ezta erabakia hartzeko moduarekin ere. Gauza bera esan dezakegu beste hainbat eskaerari buruz, hauen artean iaz aipatu zen bezala Hirugarren munduari laguntza eman ahal izateko aurrekontuaren %0,7ren ekarpena egitearena.

Aurrera begira eta udalaren dinamikari erreparatuta, gero eta argiago ikusten dugu gure alderdiaren betebeharrak agintean daudenen erabakiak kudeatzera mugatzen dela; orain arteko ildoak behintzat arrisku horretan gaudela erakusten digu. Izan ere, hainbat batzordetako buru eta beste haibatetako partaide izanik ere, dirudienez gure ekarpenak ez dira erabakigarriak, betiere azken hitza agintean daudenek baitute. Hori horrela izanda ere, iruditzen zaigu besteok, bakoitzak bere batzordean, esan eta egin duguna kontuan hartu bakarrik ez, ontzat eman ere egin behar dela eta horren arabera ebatzi.

Horretaz gain, udaletxeko beste hainbat kontu dela medio, sarritan jakiten dugu horien berri kanpotik eta hori ere ez dugu uste zuzena denik.

Beraz, eta bukatzeko, iruditzen zaigu ez gaituztela kontuan hartzen, udalaren eta, aldi berean, udalerriaren egitasmoak garatu eta etorkizuna partekatzeko. Aipatutako guztiarekin ez dugu esan nahi ez direla kortesiazko formak gorde, baina ez da partekatzerik izan.

Mutrikuko Eusko Alkartasuna

2005eko AURREKONTUEN AURREAN GOGOETA

Azken bi urteotako udal ibilbidean eta aurrekontu hauen inguruan eginiko bileretan aski garbi geratu da **bi ildo nagusi eta kontrajarriak** ari direla nabarmentzen udala gaestionatzeko ikuspuntuan:

1.- EAJ/PNVren ohikoa edo betikoa, hau da, daukagun dirua administratu eta erabiliz, sarrera eta gastu arruntak parekatuz, etorkizuneko helburu jakinik gabe eta betiko leloa errepikatuz: "Ez dago dirurik". Joera historiko honek asko lagundu du Mutrikuk gaurko errealitate ekonomiko triste hau bizi dezan. Eskuartean dauzkagun datu ekonomikoen arauera, Mutriku ia herririk pobreena da Gipuzkoan eta jarrera honekin ezin etorkizun oparorik espero.

Bide hau errazena da, daukaguna gastatu eta gehienetan adostu gabe gainera. Dudarik gabe, joera honen atzetik ikusmolde kontserbadorea dago, ausardiarik gabea, arriskatu nahi eza.

Honela uler daiteke udalak zenbait gairen inguruan azken hilabeteotan hartu dituen erabakiak. Eskura geneukan "Vivero de Empresas" ez egitea, Mutrikuberri Garapen enpresa desegitea, baserritarren edo nekazarien etorkizuna bultzatzeko lur azterketa ez egitea, atzetik datozen hainbat proiektu atzeratzea, beste batzuk ez egitea…

Baina hau gutxi balitz ere, gure ustetan okerrena zera da, udalean gero eta lan dinamika ahulagoa dagoela, eta joera hau normala da, baldin eta ez bada helburu eta erronka estrategikorik jartzen eta beste Mutriku hobeagoan sinesten.

Bestalde, honelako jokamoldeen inguruan, besteekin ez kontatzea nabarmentzen da gehienetan, bakarrik aritzea eta fatxadazko partizipazioa bultzatzea. Jarduera guztietan, edozein enpresatan… partizipazioa, guztion inplikazioa bilatzen ari direnean, Mutrikuko udalean, eguneroko jokabideak erakusten duenez, gero eta gestio isolatuago egiten da, ezkutuagoa… Ildo honen beste karakteristika, besteen "akatsak" exajeratzea, lau haizetara zabaltzea izaten da, gezur punttuarekin bada ere. Eta hori da egin dutena udalaren egoera ekonomikoa dela eta, aurreko lau urteetan "zuloa" egon dela herriratuz. Guztiok dakigu ez dela horrelakorik gertatu, guztiok dakigu gestio dinamika haundi eta egokiaren bidez diru laguntza asko lortu zela eta kofinantziazioa lortzeko mailegu beharra izan zela, Finean, burua estaltzeko eta gaitsun eza disimulatzeko hartzen diren jokabide exkaxak dira.

2.- Bigarren ildo nagusia besterikoa da, hau da, Mutriku dagoen lekutik atera eta urte batzuk barru beste maila egokiagoan situatu eta horretarako **ahalegin estrategikoan** oinarritutako langintza edo gestiogintza bultzatzea.

Proiektu berriak identifikatu, adostu eta aurrera eramateko indarrak bildu eta instituzioetara jo kofinantziazio bila. Bide honek baina, konstantzia, jarraipen handia eta ausardia eskatzen du.

Gu bide honen aldekoak gara, gaur ereiten dena bihar fruitu bilakatuko den esperantzan. Honen helburuz jorratu zen **Hausnarketa Estrategikoa,** bertan aipatzen direlarik jorratu beharreko ildoak. Hortik gauza gutxi jaso da onarturiko aurrekontuetan.

Dena dela, adostasun ahalegin bat eginez, zerrenda luze batetik gai, eskaera edo proiektu hauek proposatu ditugu akordioa lortu asmoz, biana ez dute bat bera ere onartu:

- **Txirritxako espaloia**
- **Atxukaleko harresien konponketa eta iluminazioa**
- **Gasa-rekin jarraitu**
- **Baserri lurraren azterketa burutu.**
- **Kultura eta Hezkuntzan arituko litzatekeen teknikari bat kontratatu.**
- **Kirol teknikariaren dedikazio osoa**
- **Gaztelekuaren proiektua martxan jarri**
- **"Vivero de empresas" edo Enpresa haztegia eraiki.**
- **Mutrikuberri ez desegin eta indartu**
- **Hirugarren munduari laguntza %0,7ra hurbildu.**
- **Naziogintzan, bi Udalbiltzei laguntza bideratu.**
- **…**

Laburbilduz, hau esan nahi dugu 2005eko aurrekontuei buruz:

Lehenik, ez dute Mutrikuren etorkizuna kontuan hartzen; bigarrenik, herri erdiaren ordezkaritzaren proposamenak kontuan hartu gabe egin dira eta, hirugarrenik, guztion partizipaziorik gabe landu eta onartu dira.

Mutriku Eginez herri-plataforma

KOMENDUKO MOJEI, AGUR BETIKO

Aurrez ere bagenekien arren, iritsi da Santa Katalina Komenduko mojei betiko agurra egiteko une tristea. Tristea euren betiko etxea utzi eta alde egin behar duten mojentzat eta tristea herritar guztiontzat ere. 500 urte egin dituzte gure herrian lan isil eta otoitz etengabean. Baina euren presentziak hortxe jarraituko du gure artean Elizak zabalik dirauen bitartean eta, urrutira joanda ere, euren bihotzean eramango dute Mutrikuko herriaren oroimena eta maitasuna.

Castellonen dagoen San Mateo herriko Santa Ana mojen komunitatea izango da hemendik aurrera euren etxe berria.

Elkar agurtzeko meza ospatu zen otsailaren bostean eta bertan izan zen Juan Mari Uriarte Donostiako Gotzaina. Mojek ez ezik, parrokiako abesbatzak ere abestu zuen egun berezi horretan. Meza ondoren, Mutrikuko herriaren izenean hitz batzuk esan zituen Miren Pazos zinegotziak eta gure herriaren argazki dotore bat oparitu zien mojei denon esker ona adierazteko.

Momentu hunkigarriak izan ziren, benetan; eta Ene Mutriku Maitea abestiarekin eman zitzaion bukaera.

MINUSBALIATUEK KOTXEAREN ZERGA ORDAINDU BEHARRIK EZ

Udaletxeko ogasun sailetik oharra bidali digute trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren, hau da, kotxearen inpuestoaren gainean. Seguruenik, bati baino gehiagori interesatuko zaio.

Ibilgailua minusbalia duen pertsonaren izenean badago, salbuetsi egiten da zerga hori eta, ondorioz, ezer ez da ordaindu behar. Dagoeneko, asko dira salbuespen horri lotutako mutrikuarrak baina oraindik ere salbuespenik eskatu ez dutenek otsailaren 28ra arteko epea dute eskaria egiteko. Adierazi digutenez, eskaria egun horretatik aurrera egiten dutenei hurrengo urtean, 2006an, aplikatuko zaie salbuespena.

Hila bukatzen ari denez, azkar ibili interesatuta zaudetenok!

EUSKARA BATZORDEAK KALAPUTXI ETA HITZA LAGUNDUKO DITU

Otsailean udal aurrekontuak onartuta, jakin ahal izan dugunez, udaleko euskara batzordeak, nahiz eta diru murrizketak izan dituen, lehengoan jarraituko du eguneroko prentsa eta herri mailako informazioa euskaraz lantzen duten bi produktuak, HITZA eta Kalaputxi, diruz laguntzeko jarreran.

Herritarrei euskaraz irakurtzeko eta informatzeko aukerak ematea lehentasunezkotzat jotzen du batzordeak eta horrexegatik egingo dio udalaren gobernu batzordeari bi komunikabide horiei laguntza emateko proposamena. Batetik, HITZAri biztanleko bi euroko dirulaguntza ematea izango da proposamena eta, bestetik, Kalaputxiri, urteko aurrekontuaren herena, herri aldizkarien egitasmoetan ohitura denez.

Jakin hortaz, irakurle, esku artean duzun produktu hau iragartzaileen diruaz eta goragoko erakundeen laguntzez gain Euskara batzordearen laguntzari esker ere egiten dela posible.

MARTXOAK 8, URTEROKO HITZORDUA

Martxoaren 8a egun seinalatua da mundu guztiko egutegietan; izan ere, emakumearen nazioarteko eguna ospatzen da. Ez da seinale ona izaten urtean egun bat bakarra izatea zerbaitez gogoratzeko, baina egun horretan behintzat normalean iristen ez diren lekuetara iristen da oihartzuna.

Martxoaren 8an , emakumearen eskubideak aldarrikatzen dira. XXI. mendean sartu gara baina badira zenbait gauza denborarekin aldatzen ez direnak, emakumeen aurkako bortizkeria, lanean ematen den eraso sexuala, emakumeen eta gizonen arteko eskubideen desberdintasuna... Zenbaitzuk berdintasunean bizi garela pentsatu arren, oraindik asko falta da benetazko berdintasunera iristeko.

Zenbat emakume ikusten ditugu eraikuntzan lanean? Zenbat enpresaburu? Zenbat emakume bizi dira kiroletik?... Emakumeak soldatarik bajuenak dituzten lanpostutan biltzen dira eta pobreziaren emakumetasuna eta bereizketa gaur egungo ogia dira.

Bereizketaren agerraldirik larriena emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria da. Gogoratu, egun, gure artean ere, emakume batentzat lekurik arriskutsuena bere etxea dela. Munduko Osasun Erakundeak dioenez, hiru emakumetatik bat bere bizitzan zehar fisikoki zein sexualki erasotua izango da.

Badugu zeri eman gatza, beraz ekin diezaigun guztiok lanari.

BEIRA BILKETA

Debabarreneko Mankomunitateak aurreko asteotan eskuorriak buzoietaratu ditu beiraren bilketa selektiboaren inguruko sentiberatze kanpainaren barruan. Eskuorri horretan etxean soberan dugun beirarekin nola jokatu behar dugun azaltzen zaigu. Askotan, gauza jakinak izan arren, gaizki ez datoz geuk ere eguneroko gauza txikietan ingurumenaren babeserako neurriak har ditzagun.
Labur bada ere, gogora dezagun lerro hauetan beira zakarretara botatzeko gomendioak:
- Edukiontzi berdeak (eskuorrian verdea!) erabili beira botatzeko, zakar organikoarentzako edukiontzi berdeekin nahastu gabe, hori bai.
- Beirazko botilak, poteak eta ontziak bota. Botika-potoak inolaz ere ez!
- Botako dituzunak hutsik bota eta, ahal bada, uretan pasatuta.
- Tapoirik, kortxorik eta taparik gabe bota.
- Plastikozko poltsarik ez bota, mesedez.
- Edukiontzitik kanpo ez ezer utzi.

Horrela jokatuta, birziklatzearen alde egingo dugu eta, besteak beste, honakoak lortuko ditugu: Energia aurreztea eta aireko kutsadura murriztea, hondakin kopurua murriztea eta beira fabrikatzeko lehengaiak aurreztea.
Esfortzu txiki bat eginda, hortaz, begira zenbat gauza! Eta, jakina, hori guztia posible izan dadin, kontuz kotxea non aparkatzen dugun, beiraren bila datorren kamioiak ezin izango du bestela beira hori guztia jaso!

komikixa **gotzon santander**

IAZ, 100 EMAKUME BAINO GEHIAGO HIL ZAN TRATU TXARREN ONDORIOZ... ZE IRUDITZEN?

JOSE ANTONIO ARKAUZ, 50 urte

Zer esango det ba, penagarrixa dala. Konponbide zailla ikusten diot... Emakumiak berdintasunean asko irabazi doanez, gizonak, gizon batzuk zerbaitx galdu deuela ikusten deue... Heziketiak asko lagundu ahal deu gai hontan, baiña nor bakoitzan balorietan do gakua. Lehen kristautasunak erakutsitxako baloriak hor zeuden, baiña horrek ere galtzen doz...

SOFIA MARTINEZ, 36 urte

Ez zait ondo iruditzen, zer bestela? Legeak aldatu eta gogortu egin beharko lirateke emakumeak hobeto babesteko. Tristea da emakumeak emakume izatearren babestu behar izatea, baina... Legeak zorrotz eta kartzela zigorrak ondo aplikatu beharko lirateke.

MIREN BEITIA, 52 urte

Nere ustez, etxen doanai ein doan bezela pagatu bihar zako. Herriko plaza atera eta danba, zer ein doan, halaxe ein berai ere. Ez det uste honek konpideik izango doanik... Gauzia garratza do!

JON KEPA LEKUBE, 26 urte

Tamalgarrixa! Iruditzan zat aldatuko dala, aldatu egin bihar da! Heziketan gaixan inguruan jarduten dan neurrixan, gaztiak berdintasunan kontzeptua gero eta argixo eukiko deue eta gizonezkuak errespetu haundixo izango dixue emakumezkuai. Ezberdina izanda, ingurugiroaren errespetua ere ikasi ein dan gauzia da, lehen ize ez etxetik gaur egungo kontzientzia maila izatea pasatu da. Tratu txarrekin ere berdintsu pasatuko dala uste det.

JOXEBA MENDIGUREN, 72 urte

Ez do deretxoik hortako! Emakumiak ere baditxu bere eskubidiak pertsonia danez. Ze? Gizona gehixo da ala? Lehen ez zan holakoik gertatzen, lehen errespeto gehixo zauan elkarreneako. Martxa hontan..., ez dakitx konponbideik eongo dan.

NATI AGIRREGOMEZKORTA, 37 urte

Oso gaizki iruditzen zat, ze iruditxuko zat ba? Ez noan uste horrenbeste izango zianik. Martxa hontan billurra eman bihar deu bikotia hartziak! Lehen ere izango zian holakuak, baiña ez zan horrenbeste entzutzen; gaur egun medixo geixo zela dauan, gauza geixokin enteratzen gea eta jendiak holakuak entzunda ematen deu holakuak etxiai billurra galtzen diola.

aparra
JANTZIAK - PITXIAK
Erdiko kale, 29
Tfno.: 943 60 45 94
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
eroski
Jose M.ª Altzibar Etorbidea
Tel. 943 60 31 01
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)

Gure herrian askok esan zuten: ni ere bai!

Otsailaren 11n batu zen aurrenekoz Korrika 14ren aldeko Mutrikuko herri-batzordea. Helburua, Korrika gure herritik pasatzen dela eta, egun handi hori guztion artean ahalik eta modu egokienean antolatzea. Korrikaren leloak, NI ERE BAI!, maila indibidualean hartutako konpromisoen bitartez euskalduntzeak, norbanakakoek euskalduntzeko hartutako konpromisoak euskarari ekarri dion onura azpimarratu nahi du. Mutrikuko herri-batzordeak ere lelo horren inguruko gogoeta egin nahi du: Gure herrian zenbatek eta zenbatek esan duten NI ERE BAI!

Beharbada, herri euskaldun-euskaldunean bizi garenez, urrun samar geratu ahal zaizkigu euskalduntze prozesu indibidualaren arrazoiak eta zailtasunak. Hala ere, guztiok ezagutuko dugu gure herrian euskaldundu diren lagunak. Asko dira, gure inguruan ondo begiratzen badugu, etxean erraztasunik izan gabe, ohituraren pisuak erdarara eraman arren, erosotasunaren aitzakian jausi gabe euskara ikasi dutenak, errazago edo nekezago euskaraz bizitzera ailegatu direnak. Batzuk euskaltegitik pasatuak, gehienak lagunartean eta herrian ikasiak, guzti-guztiek izan dute meritua, meritu handia, eta euskaldunok aitortu egin behar diegu meritu hori, zalantzarik ez.

Kalaputxik euskaldun berri horietako batengana jo du eta izan duen euskalduntze prozesuaz galdetu dio, arrazoiez eta zailtasunez. "Txikitan heldu nintzen Mutrikura, sei bat urterekin. Familia erdalduna izanda, mundu berri batekin topatu ginen. Ni berehala hasi nintzen nire adineko jendearekin ibiltzen eta, jakina, guztiek egiten zuten euskaraz beren artean. Nirekin erderaz egiten zuten. Gutxika-gutxika euskaraz hasi nintzen hizketan, lehenengo hitz batzuk, gero esaldi batzuk... Iruditzen zitzaidan talde osoa euskalduna izanda hemen euskaraz egitea tokatzen zela eta horrela hasi nintzen euskaraz hizketan". Horrelako kasuak guztiok ezagutuko ditugu.

"Inoiz ez dut euskara ikasteko liburu bat esku artean izan eta kontziente naiz askotan hanka sartzen dudala, baina iruditzen zait nahiko ondo moldatzen naizela. Zaila da gaizki hitz egiten duzula ikusi eta hala ere aurrera jarraitu behar duzula erabakitzea, baina koska hori gainditu egin behar da bizi zaren herriko hizkuntza zeureganatzeko. Errazena erderaz jardutea eta jendeak zuri ere erderaz egitea, baina horrela ez dituzu aintzakotzat hartzen zure ingurukoen eskubideak" esan digu askotan esan nahi zitzuenak esateko zituen zailtasunak erderaz hitz egitera bultzatutako tentaldiak gogoratuta.

Hori adibide bat besterik ez da. Zuk ere, irakurle, ezagutzen duzu euskaldun berriren bat, ezta? Pentsatu dugu inoiz zelako esfortzua egin behar izan duten? Pentsatu dugu inoiz herriarekiko, euskaldunekiko zelako begirunea erakutsi duten? Har dezagun gogoetarako unetxo bat eta pentsatu zenbat neke hartu duten batzuek gure hizkuntzaren alde. Euskaldunok ere hizkuntzaren ezagupenean baino gehiago erabilera hartu beharko genuke konpromisoa eta esan, bai, ni ere bai!

Korrika 14 Debatik etorri eta Ondarroara joango da Mutrikutik pasatuta. Debako zubitik Katetxeraino, hortaz, 8 kilometro-tan eramango dugu mutrikuarrok korrikaren lekukoa. Herriko talde eta elkarteak animatzen ditugu kilometroak erosi eta korrikaren lekukoa eskuz-esku denon artean eramatera. Hori bai, lekukoa eraman nahi duten elkarteek eta taldeek herri-batzordeari adierazi beharko diote beren nahia.

Mutrikuko herri-batzordeak Korrika 14ren materiala jarriko du salgai: pinak, kamisetak, diska, petoak... eta *Ni ere bai!* pina, 12 euroren truke Euskal Herriko establezimendu askotan deskontuak eskainiko dituena

BERTSOAK

bere tartea izango du KALAPUTXIN

Aurrerantzean Kalaputxiko orrietan tarte bat eskainiko zaio bertsoari, Bertso Eskolako lagunei esker. Hil honetan, etorkizunean irakurriko ditugun bertsoen tarterako aurkezpena jaso dugu ondoko lerroetan.

Mutrikuarrok betidanik izan dugu bertsozaletasuna herrian, modu batera edo bestera, gehiago edo gutxiago, guztiok gozatu izan dugu noizbait bertsoarekin. Bertsolari paregabeak ere eman ditu Mutrikuk, batetik hor daukagu Jon Azpillaga, ezin esan dugu guztiz Mutrikuk emandako bertsolaria denik, baina andrea eta bizitzako zati handi bat behintzat Mutrikuri zor dio eta bertsolariarengan badute eragina, batez ere lehenengoak.

Bestetik, hor dauzkagu Okelar baserrian sortutako Roman eta Modesto anaiak, behin baino gehiagotan irribarrea ezpainetara ekarri digutenak, beren santa eskeko koplekin.

Urteak ez dira alperrik igarotzen eta, eredu izaten jarraitzen dutenei eztarria lakartzen ari zaien heinean, atzetik datozen gazteei mingaina arintzen ari zaiela ez da esan beharrik. Bere garaian Bertso eskola ere sortu zen bertsozaletasun horrek eraginda, eta gaur egun ere hor ari da martxan, inoiz baino indar handiagoarekin gainera. Horren adibide da sortu berri diren gaztetxoen bi talde berriak; animo beraiei!

Eta nola ez, egoki iruditu zaigu bertso eskolak tartetxo bat izatea Kalaputxi barruan, bertsoari lekutxo bat egitea. Bertso eskolan egiten dugunaren isladatxo bat izan nahian, hilabetero gai baten inguruan bertso edo ahapaldi batzuk argitaratzeko konpromisoa hartu nahi dugu. Ez da komeni bertso guztiak Luardoko hormetan xurgatzea, nahiz eta batzuk horma artean izkutatzea hobe izan...

Hala, herrian ditugun "inprobisadore" berriak ezagutzeko aukera izango duzue, Mutrikuarra ez den bat edo beste ere bai. Bertsoa ez da inoiz ariketa erraza izan eta, bertsoa idaztera animatzen denak egiten duen ahalegina eskertzekoa da, denbora gehiago izan arren, hasi eta bukatu egin behar baita, eta ez hori bakarrik, ahal bada ondo hasi eta hobeto bukatu.

Hil honetako bertsoetara pasatu aurretik, bertsoaren munduan interesa duten herritar guztiei gonbidapena luzatu nahi diegu Bertso eskolatik nahi dutenean Luardoko gure lokaletik pasatzeko. Astelehenetan eta barixakuetan zain izango gaituzte, arratsaldeko seietatik zortziak artean. Animatu!

Gu, bertsotan sarritan gertatzen den bezala, ahal den moduan hasiko gara, mingainera lehenengo etorritakoarekin. Datorrenari aurre egiteko, geure buruan sinestea bezalakorik ez omen dago, punturik-puntu neurriz-neurri mejoratzeko ahalmena emango digulakoan...

Lehenengo bertsoak idaztera animatu dena, Ruben Arrizabalaga "Etxerre" izan da. Rubenek, "ihauteriak" gaitzat hartuta, pare bat bertso idatzi ditu, hona hemen bertsoak:

IHAUTERIAK

DOINUA: BEDERATZI PUNTUKOA
TXIKIAK GINENEAN
BAZEN GOZAMENA
HAUNDI IZAN NAHIA ZEN
HAIN NABARMENA
BONBERO NAHI NUN IZAN
AHAL ZEN ONENA
GAZTE NINTZEN ORDUAN
ETA A ZE PENA
BARREA AURRENA
NEGARRA HURRENA
PIKUTARA DENA
ILUSIO ZENA
MOZORROTU EZKERO
LORTU LEIKENA (BIS)

EGUNA IRITSITA
ZER JANTZIKO GAUDE
LENGO ERROPA ZARRAK
NUN KRISTO DAUDE
GURE AMONA ZANAK
HAN GANBARAN GORDE
AZPIKO GONAREKIN
KANTZONTZILO GABE
TXUKUN TA DOTORE
ISILTZEA HOBE
BAINA HALA ERE
ESKUTAN BI LORE
KALERA IRTEN NINTZEN
AMONAN PARE (BIS)

Mutrikuko Bertso Eskola



Kirola zaletasun, futbola bizibide

Markos Amadok odolean darama kiroletarako zaletasuna. Kirol ikasketak burutu eta gero, han hemenka ibili izan da kirol prestatzaile gisa. Egun, Bilboko Athletic taldean kadeteetako prestatzaile fisikoetako bat da. Gustura dago egiten ari den lanarekin, bere zaletasuna eta lana uztartzea lortu duelako.

Betidanik kirolari lotuta?

Beti gustatu izan zait kirola egitea eta ikustea eta beti aritu izan naiz futbolean. Umetan zeinek ez dauka baloi bat? Gaztetxoa zarenean ez dakizu nondik egingo duzun bidea baina nik nahiko garbi izan dut kirolari lotuta egon nahi nuela. Ikasteko orduan Gasteizera joan nintzen IVEF egitera eta karrera bukatu ondoren hemengo kiroldegian hasi nintzen eskola kirola ematen, era berean Ondarruko Aurrerak ere deitu ninduen eta han ere ekin nion lanari.

Zein da zure lana?

Nire lana prestatzaile fisikoa da. Hasieran ez dakizu nola bideratu ikasi duzun hori, gero gutxika-gutxika ikasten joaten zara. Zure ezagupenak egunerokoko lanean txertatu behar dituzu, horretarako asko irakurtzea eta kongresuetara joatea oso baliagarriak dira, handik eta hemendik joaten zara hartzen eta gauzak tajutzen. Ni Ondarruko Aurreran hasi nintzenean oso gogorra izan zen baina handik eta hemendik ikusita eta ikasita jakin nuen aurrera egiten. Egun Bilboko Athletic taldean aritzen naiz oinarrizko bi talderekin eta oso gustura. Nire lan orduak ez dira lantegi batetakoak bezala. Entrenamendukoak ordu fijoak dira baina horien aurrekoak prestatu egin behar dira. Nik ez daukat asteburu librerik, gabonak ere hortxe-hortxe, 3 egun libre edo... lagunekin planak egitea ezinezkoa da, entrenamendurik edo partidarik ez dugunean beste partida batzuk ikustera joan behar naiz. Horretaz gain, beti egon behar duzu ikasten, egungo kirol mundua oso zabala da eta berrikuntza ugari gertatzen dira eta adi egon behar duzu, egunean egotea beharrezkoa da. Heziketa ikastaroak ere eman izan ditut eta hori ere ez da xamurra. Hitz batean esanda, ordu asko eramaten duen lana da nirea, baina gogoko tokian aldaparik ez.

Gustura zaude Atletic taldean?

Bai, ez daukat kexatzeko arrazoirik. Lana gogorra bada ere, esker onekoa da. Ni-

Kirola denentzako jarduera dela uste dut, ez dago sexuen araberako kirolik.

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
943 60 35 44

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
eroski
Jose M.ª Altzibar Etorbidea
Tel. 943 60 31 01
20830 MUTRIKU (Gipuzkoa)

Aurtengo Aste Santuetan Extremaduran izango gara txapalketa jokatzen. Handik etorri eta Irunen izango naiz egun batzuetan lanean, baina hori da politena, gehien gustatzen zaidana.

rekin dabiltzan umeak ere jator-jatorrak dira, sakrifizio handiak egiten dituzte entrenatzeko. Ikasi eta gero entrenamenduak, han ingurukoa bazara gaitz erdi baina badago Mutrikuko gazte bat, Joseba Beitia, Athletic taldean dabilena eta horrek ikastola bukatu eta gero taxia hartu eta Lezamara joan behar du, han entrenatu eta etxean eskolako lanak egin... gauza asko dira baina gustukoa denez aurrera egin behar. Oso ume diziplinatuak dira, ondo antolatzen dituzte ikasketak eta entrenamenduak. Azterketa garaian baimena daukate ez entrenatzeko baina bestela ardura eskatzen zaie.

Zein kirol duzu gustukoen?

Futbola. Futbolaz gain beste kirol batzuk ere egiten ditut, gustatzen zait tenisean jokatzea, saskibaloia, korrika ere egiten dut, igeriketa... edozein kirol dut gustuko, baina gehien futbola.

Ez duzu uste futbolak gehiegizko indarra duela?

Diru asko dago futbolean. Telebistek dirutza ikaragarriak ordaintzen dituzte futbol partidak emateagatik eta diru hori ondo datorkie taldeei. Era berean, zaletuek ere jokalari onenak nahi dituzte taldeetan eta horrek dirua balio du. Diru kopuru ikaragarriak mugitzen dira futbolaren inguruan. Egun, liga frantzesa, italiarra denetik daukazu telebista digitalean eta horren guztiaren berri izan dezakezu. Dena den, futbolaz gain beste kirol batzuk ere indarra hartzen ari dira eta hori oso ona da.

Aurrera begirako planik bai?

Niri urtero berritzen didate lan-kontratua, ez dakit datorren ligan Athletic taldean egongo naizen, ikusteke dago. Talde handietan egotean jende askok ikusten zaitu eta badaki zure ibilbidea zein den baina ez dizu ezer ziurtatzen. Dena den, lana egiteaz gain master bat egiten ere ari naiz, hobeto esanda, aurrez eginiko masterraren azken lanean ari naiz burubelarri.

Eta masterra zeren inguruan?

Ikasketak bukatu nituenean Madrilera joan nintzen kirol errendimendu handiari buruzko masterra egitera, bi urte egin nituen bertan. Orain berriz eta masterra bukatzeko azken lana aurkeztu behar dut eta berau nesken taldeen ingurukoa da gai horri buruz ez dago eta ezer eginda.

Nesken talderik entrenatuko al zenuke?

Zergatik ez? Mutilen artean badago oraindik nolabaiteko mesfidantza nesken futbola dela eta, baina denborarekin horiek desagertzen joango dira. Athletic-en talde nagusiaz gain beste talde bat ere badago eta herrietan ere, ikustea besterik ez dago Mutrikuko nesken ekipoa. Realak ere atera du bere taldea eta nik uste dut nesken taldeak ugaritzen joango direla. Eskola kirolean neskak eta mutilak elkarrekin jokatzen dute eta normaltzat jotzen da.

Gazteei aholkurik bai?

Edozein kirol mota probatzearena, nik ez nuen zesta probatu eta horren damua daukat, boleibola probatu nuen eta izugarri gustatu zitzaidan. Aukera desberdinak eskeini behar zaizkie umeei eta gero horren arabera erabaki. Eskola kirola izan daiteke egokia horretarako.

Ez du denborarik galtzeko Bilbora itzuli behar baitu. Esker mila Markos eta zorte on.

KALAPUTXI
Mutrikuar guztiek
ikusiko dute zure iragarkia
Barrenkale, 12-behea Tel. 943603468 eta 635748393

MUTRIKU
ARGAZKI TALDEA

Elkartegintzan gertatu ohi denez, Mutrikuko Argazki taldearen historia gora beheratsua izan da bere bizitzan zehar. 80ko hamarkada hasieran sortu zen taldeak momentu indartsuagoak eta momentu ahulagoak izan ditu. Sorrrerako argazkizale taldeari erreleboa hartu zion beste zaletu talde batek... Etorkizunean ere etorriko al da erreleborik! Taldeaz gehiago jakitearren, gaur egun Argazki Taldearen jardunaz arduratzen den Amparo Royorengana jo dugu.

Noiz sortu zen, Amparo, Mutrikuko Argazki Taldea?

Ni Mutrikura 85ean ailegatu nintzen eta ordurako sortuta zegoen. Juano Basterretxea, Juan Luis Arrizabalaga, Juan Luis Alberdi eta Jontxu Beristainek osatu zuten taldea, Iñigo Andonegiren laguntza zuzena zutela. Ni gero sartu nintzen taldera. Haiek izan ziren gerora fruituak eman dituen hazia erein zutenak.

Jende berria sartuko zen gero...

Izenak zerrendatzean beti dago norbait ahaztekо arriskua, baina gogoan dut 89 urte aldera Rosa Arostegi Josetxo Flores, Izaskun Iparragirre, Iñigo Rico, Angel Uranga eta ni neu izan ginen taldean. Ordurako, aintzindarietako batzuk erdi lagata zuten taldea. Nolabait, erreleboa eman zen orduan. Denborarekin, baina, bizitzaren gora beherengatik, badakizu, ezkondu... kanpora joan bizitzera... umeak... jendea talde-dinamika lagatzen joan da eta gaur egun oso gutxitan elkartzen gara lehengo aldean.

udaberrian izango da argazki-rallya

Zein du helburu Argazki Taldeak?

Argazki taldearen helburua argazkizaleei argazkigintzan aukerak ematea da, bakarka garatzeko zailak izan daitezkeen baliabideak eskaintzea... Adibidez, laborategi eder bat izan du beti taldeak, beharbada norberaren etxean izango ez lukeena inork. Horretaz gain, interesgune bat partekatzeko aukera eskaintzea ere bada honelako talde baten zeregina, adibidez, ikastaroak edo erakusketak antolatuta.

Gainera, taldearenaz gain, norberaren helburuak ere badira. Batek taldeak dituen baliabideak aprobetxatu nahiko ditu, beste batek argazkigintzaz gozatu lagun artean..., guztiok dakigunetik abiatu eta gauza berriak ikasi... Edonola ere, argazkizale guztion helburua da begiratzen ikastea, bisoretik begiratu eta errealitatearen irudiak betiko gordetzea.

argazkizaleon helburua begiratzen ikastea da



Taldearen jarduna taldekideei bai, baina herrira ere zabaltzen da.

Bai, hori oso garbi izan da hasiera-hasieratik. Azken batean, iruditzen zaigu taldeak, herriko talde den neurrian, herriari ekarpena ehgin behar diola, ez dela barrura begira geratu behar, konpartitu egin behar dituela herritar guztiekin aurrera atera nahi dituen asmoak. Helburu hori betetze aldera antolatzen dira ikastaroak, argazki rallyak eta erakusketak. Horietan guztietan nahi duten herritar guztiek har dezakete parte baina, tamalez, erantzuna ez da beti oso ona izaten.

Ikastaroei dagokienez, laborategikoak antolatu izan dira, zuribeltzeko errelebatua, cibakrhome errelebatua edota birajea eta colorvir teknikak lantzekoak adibidez. Argazkiak ordenadorean lantzeko photoshopen ikastaroa ere antolatu du taldeak.

Argazki rallyak lehen urtero antolatzen ziren baina orain bi urtetik behin antolatzen dira. Aurten ere udaberri aldera antolatzeko asmoa dago. Beharbada, ekintza honek du harrera onena herritarren aldetik, batez ere egun horretan ateratako argazkien emanaldiak.

Azkenik, argazki erakusketak urtean behin gutxienez eta, ahal bada, bitan antolatzen ditugu. Behin, 1991 aldera egin zen taldekideon erakusketa bat, baina normalean kanpoko argazkilarienak ekartzen ditugu, ikuspegi eta lan berriak, ezberdinak erakustearren. Erakusketa hauek ideia berriak hartzeko eta argazkizaleen aberastasunerako antolatzen dira.

Gogoan dut Mutrikuko argazki zaharren liburua argitaratu aurretik egin genuen erakusketa arrakastatsua izan zela. Jendeari hurbileko gauzak gustatzen zaizkio, gauza ezagunak, baina kanpokoak eta berriak ikustea eta ezagutzea ere ez dago soberan.

Aurten taldekideen erakusketa egitekoak zarete...

Esan dudanez, normalean kanpoko lanak ekartzen dira, baina herrikoek ere maila dutela eta egindako lanak erakutsi egin behar direla erabaki genuen. Ondorioz, taldearen historian zehar taldetik pasatu diren argazkizaleen argazkiak bilduta antolatuko da erakusketa, otsailaren 27an astebeterako irekiko dena.

Pentsa liteke atzera begirako erakusketa dela, baina ez da ohizko atzera begirako erakusketa izango. Izan ere, nahiz eta erakutsiko diren lanak lehengo taldekideenak izan, lanak atzokoak bai baina gaurkoak ere izango dira, argazkiaren inguruan denboran zehar ikasitakoak isladatuko dituztenak. Hortaz, esan dezakegu gaur egungo erakusketa izango dela.

Erakusketara berataratzen denak erretratuak eta paisajeak ikusiko ditu nagusiki, zuribeltzeak batzuk eta koloretan besteak... Baina hortaz hitz egin baino erakusketa ikustera joatea gomendatu nahiago dut.

Aurrera begira, zela ikusten duzu taldearen martxa?

Martxa onik ez dut ikusten, taldeak talde-dinamika galduta baitu, eta taldearen martxa pertsona baten gainean geratzen denean ideiak agortzeko eta errepikatzeko arriskua dago. Jende parte-hartzailea behar da, jende berria ideia berriekin eta gogo berrituarekin. Hemendik, nola ez, dei bat egin nahi diet argazkiaren zaletasuna garatu nahiko luketen guztiei, jakin dezaten zaletasun hori konpartitzeko gertu gaudela.

Jende berririk etorri ezean ere, taldeak jarraituko du baina. Taldeak aspaldiko proiektuak eginkizun ditu eta, horiek aurrera ateratzea zaila izango bada ere, hor daude horiek ere, herriko harmarrien argazki bilduma edo herriko baserrien argazki bilduma adibidez. Gainera, lehen esan dudan bezala, herritarrei begirako ekintzak antolatzen ere jarraituko du Mutrikuko Argazki Taldeak, adibidez udaberriko rallya edo laster izango den argazki erakusketa.

LAN-ISTRIPUAK

Urtarrileko egunkarietan tantaka-tantaka eta lehen orrietan azaldu izan zaigu Hego Euskal Herrian lan istripuetan hildakoen albisteak, eta bederatzira heldu dira. Otsailak ere hiru hildakorekin eman du hasiera. Honetaz hitz egiteko, Jon Iñaki Galparsoro eta Leonardo Belaustegi, ELA eta LABeko ordezkariekin bildu gara.

Hego Euskal Herriko datuak:		
2004 urtean	**2003 urtean**	
77	136	Istripu hilgarriak
590	770	Istripu larriak

industria arloan beste arloetan baino hobeto gaude

Albiste hauek irakurtzean zer da burutik pasatzen zaizuen lehen gauza?

Jon – Lehendabizi zirrara batek eragiten dit gorputza. Ogi puska bat bere famialiarentzat irabaztera doan aitaren irudia etortzen zait burura eta haren familian sortzen den drama hilotz etxeratzean. Zenbat ilusio, zenbat proiektu, zenbat maitasun une batean zapuztuak..., eta ondoren haserrea, zeren istripu horlek guztiak ziur nago galerazterik izan zitekeela.

Leo – Jonekin nago une larri eta gainera galerazgarriak direla esaten duenean eta hori uste dut irakurle guztien burutik pasatzen dela, baina nik orokorrean azaleratzen ez den bigarren zatia agertu nahi nuke, hau da, alargun eta seme alabek pairatu behar izaten duten ondorengo tratua eta adibide bat kontatuz hobeto ulertuko dela esango nuke. Manuel Fernández Pasaiako arrantzalea 2002ko azaroaren 13an erori zen uretara oso itsaso zakarrarekin lanean ari zirela eta egun batzuetara Frantziako hondartza batean azaldu zen hilik. Inork ez zuen ikusi nola erori zen uretara, ezta uretan laguntza eske. Bada, erorketa horren ildotik datozkio Maria Victoria Carballo alargunari bere duintasunaren aurkako etengabeko kolpeak. Segurtasun neurririk gabe zegoen arrantzalea ontziaren mugimenduak eraginda erori zen ala zoruan indar hidraulikoz mugitzen diren kableren bat zapaldu eta hura tenkatzean katapultatua izan zen, aseguru etxeetatik jasoko duen diru kopurua erdira jeisten da bigarren kasuan eta hor dabil oraindik tribunaletan bere senarrari era hartara ala hontara gertatu zitzaion erabaki ezinik. Zorigaitzaren ondoren zure saminak diru bilakatzen direnean, egoera tamalgarri eta babesgabeko batean, horrek bai barrenak kizkurtuta uzten nautela.

OLATZ ARREGI
Barne diseinua
PROIEKTUAK
etxebizitza eta lokal komertzialak
OBRA ZUZENDARITZA
Tel:943 683 171 - mob:656 770 368 - interostudi@euskalnet.net
Portu kalea 11, behea - 20830 Usurbil (Gipuzkoa)

santalucía
ASEGURUAK
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
ERDIKO KALE s/g Tel: 646351352-657729071

arrisku nabariaren aurrean, langileak lana eteteko eskubidea du baina...

Iazko urteko datuek ematen zuten lan istripuak menderatzen hasiak ginela. Aurtengo hasiera ikusita zer diozue datuei buruz?
J – Ez dakit gehiegi datuei buruz. Pentsatzen dut hildakoei buruz oker askorik ezin daitekeela egon oso nabarmenak direlako, besteak gutxienez konparagarriak izango direlakoan nago, nahiz eta errealitatetik agian urrundu.
L – Nik neuk ez dut daturik manejatzen baina gure sindikatuak dio 2004 urtean Espainiako Gobernuak lan istripuak erregistratzeko Delta izeneko sistema jarri zuela martxan eta horren bidez autonomia erkidegokoak albo batean utzi zituela neurri batean eta lan istripuen kopuruak, ordura arte goranzko joera edo mantentzekoa zuena, behera egin duela nabarmen. Dena den, hor dituzun datuak Osalan eta Nafarroako Gobernutik jasoak dira eta nahi nuke behintzat fidagarriak izatea. Beti ere enpresak dira datuak bidaltzen dituztenak eta errealitatetik aldendu daitezke.

Lan arriskuen prebentziorako legea betetzen al da?
J – Lan arriskuen prebentziorako legea zabala da eta zenbait arlotan betetzen da. Gure enpresan adibidez erosten diren makina berriak merkatu europearrak agindutako "CE" eta "Konformidadeko adieraztasunekin" etortzen dira eta makina zaharrak egokituak izan dira. Arrisku ebaluaketa eginda dago, segurtasun formazioa ere eman izan da langileria guztiari, segurtasun komiteak funtzionatzen du, prebentzio zerbitzu bat kontratatuta dugu segurtasun eta osasun arloak zaintzeko... baina oraindik pausorik gelditzen zaigu urteroko prebentzio plana produkzio eta kalitatekoen mailara iristeko. Orokorrean pentsatzen dut industria arloan beste arloetan baino hobeto gaudela.
L- Arrantza arloko egoera ezberdina da. Arrisku ebaluaketekin ari gara gogor egiten, baina oraindik hauek txalupa kaian dagoenean egiten dira eta, noski, situazio horrek ez du zer ikusirik olatu artean lanean aritzearekin eta lana etetea kapitainaren iritzipean soilik geratzen da. Arrisku nabaria ikustean langileak lana eteteko eskubidea izan arren, ez da erabiltzen eskubide hori, ondorioak denok dakigulako zeintzuk diren. Asko dago egiteko arrantza arloan eta borondate falta nabaria da.

Zenbait istripu batzuetan enpresa buruak direla-eta eta besteetan langileak direla-eta gertatzen dira. Nola ikusten duzue prebentzioaren kultura?
J – Esango nuke nahiko aurreratu dela. Inoiz ikusi izan dut, nahiz eta eguneko jardunean ez diren gertatzen, esfortzu eta arrisku handiko lanak egiten egoera kaxkarrean eta, egia esan, neu ere gerora konturatu izan naiz haren arriskuaz. Badaude, hala ere, arlo batzuk oraindik gure kulturan urrun daudenak, ergonomikoak eta psikosozialak. Hauek hor daude eta, zenbat bizkarreko minek eta emaztearekiko haserrek dute lotura lanarekin? Hor uzten dut galdera.
L – Pozten naiz Jonek kontatzen duenarekin. Nik esango nuke arrantza sektorean diruaren kultura garbia dela eta prebentzioarena ez dela ia ikusten. Ardura nagusia enpresariari eta administrazioari ere zinzilikatuko nieke baina langileekin berekin ere arazo larria dugu, bajuran gehienbat, zeren arriskuko lan asko "gizon-lantzat" hartzen da eta barregarritzat hartu inoiz inork segurtasun konturik aipatzen badu. Gazteak kokilduta geratzen dira nagusien parre eta mesprezuekin.

Zerbait gehiago nahi duzue esan Kalaputxitik?
J – Ba gehituko nuke istripu gehienak zerbitzu eta eraikuntzan gertatzen direla, beharbada denok ikusten ditugula arriskuko jokaerak eta esan behar da denon errespontsabilitatean sar dezakegula gerta daitekeen istripua, salaketa faltagatik.
L – Nik gomendatuko nuke prebentzio ekipoak erabiltzeko itsasoan, neurriak izateaz gain. Istripua guri begira dagoela uneoro eta poztuko nintzatekeela kontxa bien erditik txalupan txalekoa jantzita irtetzea gauza arrunta balitz eta ez parregarria, zeren adieraziko luke beste zenbait aspektu garrantzizko ere kontuan izango liratekeela.

Arau subsidiarioei alegazioak

Kalaputxiren urtarrileko alean Udala burutzen ari den Arau Subsidiarioen berrikusketari buruz jardun genuen. Esaten genuenez, berrikusketa horren ondorioz sortuko den agiri horretan datozen urteetan hirigintza mailan herrian egin ahal izango direnak jasoko dira. Arauek erakutsiko digute enpresa jardueretarako gordetako lurrak zeintzuk diren, etxebizitzatarako gordetakoak zeintzuk diren, zenbat etxe egin ahal izango diren, herritarrentzako ekipamendutarako gordetakoak... Berrikusketa prozesuak eskatzen dituen urratsetako bat jendaurreko erakusketa zen eta, aldi hori igarota, herritarrek alegazioak aurkezteko epea. Eta izan dira alegazioak. Aurrerantzeko urratsak alegazio horiei, Hirigintza batzordean aztertu ondoren, erantzuna ematea izango da eta, hala erabakiz gero, berrikusketaren agirian txertatzea.

Mutrikuko plangintzarako Arau Subsidiarioen berrikusketari alegazioak aurkezteko epea abenduaren 15ean bukatzen bazen ere, udalak luzatu egin zuen epe hori eta azken alegazioa urtarrilaren 4an jaso zen. Guztira, 18 idatzi aurkeztu dira arauei 68 alegazio eginez. Idatzi horietako gehienak puntualak dira, gai bakarreko ardura dutelako. Beste idatzi batzuk, berriz, gai askoren ardura hartzen dute eta arauak modu globalean hartzen dituzte alegaziogai. Bi idatzi garrantzitsuenak, Mutriku Eginezek eta Mutriku Natur Taldeak aurkeztutakoak.

Bi idatzi horiekin hasi aurretik, esan behar da aurkeztutako alegazioei errepaso azkarra eginda ikusten dela industriarako egin diren proposamenen aurrean alegazioarik ez dela aurkeztu, ez eta Mutrikuko portuaren zabalpenaren aurrean edo etxebizitza tasatutarako zein babes ofizialeko etxebizitzatarako gordetako lurren proposamenen aurrean ere.

Aurkeztutako bi alegazio-multzo nabarmenenei helduta, bertan agertutakoak azaltzen saiatuko gara, handi-handian izango ez bada ere.

MUTRIKU EGINEZEN ALEGAZIOAK

Mutriku Eginezek bost alegazio aurkeztu dizkio Arau Subsidiarioen berrikusketaren proposamenari. Horietatik lauk etxebizitzatarako beste hainbeste eremuri dagozkie eta boskarrena, berriz, lurzoru urbanizaezinari.

Santa Katalinako komenduaren inguruari dagokionez, 1971 urtetik hona area horrek izan duen aprobetxamenduari, hau da, area horretan zenbat etxebizitza egin zitekeen eta zenbat egin diren, errepasoa eginda, udalari area horren aprobetxamenduaren gaineko azterketa egiteko eskatzen zaio. Horrekin batera, eremu horretarako egin den etxebizitzen planteamendua aztertuta, etxebizitzak komenduko eraikinaren alboko lurretan eraiki gabe errepidearen beste aldean, Kanteratzean edo beste eremu batean egitea proposatzen da. Hartara, herritar guztiek erabiltzeko moduko parkea egin ahalko litzateke.

Bigarren alegazioa San Nikolas-Burumendi eremurako aurreikusitakoaren zati bati aurkeztu zaio. Izan ere, eremu horretan eraikitzea aurreikusten diren eraikin batzuen deskribapenean eta definizioan bestelako iritzia agertuta, horien ordezko alternatiba planteatzen dute.

Hirugarren alegazioa San Miguel futbol zelaiaren ingurukoa da. Eraikuntza area horren antolamendua egokitzat jotzen da, egoitza-eremua ezartzeari dagokion puntuan izan ezik. Santa Katalina komenduarekin batera ezinbesteko eremu irekia sortuko duen hiri-parkea eta zehaztu gabeko jardueraren batera bideratuko den komunitate-ekipamendua oso garrantzitsutzat jotzen dira, baina ez da nahitaezko ikusten toki horretan etxebizitzak egitea. Finantziazioa beste area urbanizagarri batzuetatik ekar liteke eta, baita ere, azpiegiturako obra handien aurrekontuaren %1 kultur ekipamendua finantzatzeko bideratuta, kultur-, kirol-, zein aisialdi-ekipamenduetarako erakunde publikoek eskaintzen dituzten hainbat dirulaguntza eskuratutaedota udalari dagozkion aprobetxamenduak erabilita.

Laugarren alegazioan, Entzusako bidearen eta Txurruka tenienteak etorbidearen arteko Azkiaga eremua hartzen da kontuan eta desadostasuna puntu bakarrean laburbiltzen da: hirigune historikoarekin bide-loturan.

Azkenik, lurzoru urbanizaezinari dagokio boskarren alegazioa. Alegazio horretan jasotzen da Arau Subsidiarioen

berrikuspenak Debabarreneko landa-garapenerako plan estrategikoa aintzat hartu behar duela; are gehiago, udalak plan horrek Mutrikurako proposatutako azterketak egin behar dituela. Plan hori egin artean, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapen berriak baimentzeko gutxieneko azalera 5 Ha-tan mantentzea eskatzen da.

MUTRIKU NATUR TALDEAREN ALEGAZIOAK

Talde honek, guztira, 30 alegazio aurkeztu dizkio Arauen berrikusketari. Batzuk arauek aurreikusten dituztenak hobetzera zuzenduak eta besteak arauetan jasotzen ez diren hutsuneak betetzera zuzenduak. Berrikusketan puntuen araberako sailkapen bat eginda, hona hemena Mutriku Natur Taldeak aurkeztutako alegazio nagusiak:

- Etxebizitzatarako gordetako lurra

Arauek aurreikusten dituzten etxebizitzatarako asmoen aurrean alegazio orokor bat egin dute, "Mutrikun 900 etxebizitza berriren beharra zientifikoki eta modu arrazionalean justifikatzeko" eskatuz.

Bestalde, gauza zehatzetara jota, komertziorako zein industriarako lokalak etxebizitza sozial bihurtzeko araudia sortzeko eskaria eta Entzusako bidearen eta Txurruka tenienteen etorbidearen arteko espazioa berrantolatzeko eskaria egin dute, bigarrenean espazio berde gehiago eta garajetarako tokia aldarrikatuz.

- Azpiegitura nagusiak zein sistema orokorrak

Beharbada, egitasmoak duen tamainagatik, Mutriku-Sasiola errepidearen aurkako jarrera da alegazio nabarmenena. Taldearen ustez, Arnok duen babes erregimena zabaldu egin beharko litzateke Astigarribia auzoa bere baitan hartuta, horrela etorkizunean espekulazio urbanistikoa eta industriala ekidinda.

Lehorretik itsas bazterreraino ailegatzeko bideak egungo legeari lotzeko eskaria ere egin dute, kostan zehar lihoakeen bide ba, pasealekua, proposatzeaz gain.

Bestalde, tamainan txikiagoak izanda ere, herritarrentzat beharbada garrantzitsuagoak izan daitekeen proposamena ere sartu dute alegazioetan: Mutrikutik Debarainoko errepidearen parean oinezkoentzako ibilbidea aurreikustea, Getariatik Zarautzera dagoenaren antzekoa.

Herrigunea peatonalizatzea izan da beste alegazio bat.

- Ekipamenduak

Azken boladan hizpide nagusi bilakatu den futbol zelaiaren inguruan Natur Taldea dagoenean uztaren alde agertzen da, baina ematen zaion erabilera zabaltzea proposatzen du. Kirolaren esparruan jarraituta, Urasandi-Reiner eremuan Mutrikuk eta Debak konpartitzeko moduko pistina bat proiektatzea eskatzen dute.

Kanpo santua dagoen dagoenean lagatzea eta bertan dauden zuhaitzak, haginak, babestuta dagoen espeziea izanda, ondo-ondo zaintzeko eskatzen da beste alegazio batean.

Mauleon atzean naturarekin harreman estuan legokeen antzoki ireki bat egitea proposatu dute ekipamendu kultural gisa.

Mojak doazela eta, komenduan zer egingo den ere ahotan darabil jendeak aspaldian eta Natur Taldeak argi du bere proposamena: Komendua zaharren egoitzarako prestatu eta egungo erresidentziari ostalaritza erabilpena eman.

- Jarduera ekonomikoetarako gordetako lurra

Alegazio batean jasotzen da Reiner enpresaren inguruan akuikultura enpresa batentzat lurra gorde litekeela, inguruak eskaintzen dituen aukerak baliatzearren. Beste alde batetik, herrian hotel bat egiteko erraztasunak emateko eskatzen da.

- Ingurumen fisikoaren babesa eta Ondare kulturala

Mutriku Natur Taldearen kezka nagusiena, jakina, ingurumenaren zaintza denez, arauen esparru honetan egin du, beharbada, ekarpen handiena. Hona alegazio nagusienek dakartena:

Egun indarra hartzen ari den turismo jardueraren aurrean, Natur Taldeak jasangarritasunaren bidetik jokatu behar dela irizten dio eta horren adibide Lanzarote jartzen du; gainera, Lanzaroterekin anaikidetza sustatzea proposatzen du. Olatz eta Astigarribia auzoetan ibilbide tematikoa antolatzea ere proposatzen dute, bertan Euskal Herriko animali- eta landare-espezie autoktonoak berrezartzeko modua sustatuta.

Lurraldearen esplotazioak paisajean duen eragin zuzenari erreparatuta, Natur Taldeak uste du bizitzeko leku hobeak lortzeko paisajea zaintzea ezinbestekoa dela. Horregatik dio *"arkitektura ordena, poesia, erritmoa, espazioa eta paisajea izan behar dela"*.

Energiaren kontsumoa eta energia berriztatzaileen sustapena da Natur Taldearen beste kezka iturri bat eta horri atentzioa jartzeko eskaria egiten zaio udalari beste alegazio batean.

Mutriku-Saturraran itsaslabarra LIC gune gisa sustatzeko eskatzen da eta, baita ere, europar Natura 2000 sarearen baitan katalogatzeko erraztasunak eskaintzea. Horrekin batera, zati batean Natura 2000 sarean dagoen Arno ingurua Deba ibairaino zabaltzea proposatzen da, hartara Astigarribiako auzoa ere babestu egingo bailitzateke, duen ondarezko aberastasuna gorderik.

Horiek dira, laburtuta, Natur Taldeak aurkeztutako alegazio nagusienak, baina beste batzuk ere egin ditu herritar guztientzako mesedegarri izango direlakoan, adibidez, herriko toki jakinetan eskelentzako panelak ipintzea edota Goiti Beheratik Samikoilara artean Macaronesica landarak landatzea paisajea edertzearren.

Haurdun!!!

Haurdunaldia oso garai berezia da emakumearen bizitzan eta, gaur egun, sekula baino bereziagoa dela ere esango genuke. Izan ere, medikuntzaren aurrerapenei esker, gaurko emakumeak borondatez eta maitasunez hartzen duen erabakiaren ondorioa baita haurdunaldia. Egoera pozgarria, benetan; baina kezka, beldur eta laguntza beharrekoa ere bai, jakina! Horretarakoxe izaten dituzte asteroko bilerak emaginarekin: euren haurdunaldiaz gehiago ikasi eta erditze momenturako prestatzeko. Bertan izan ginen egunean Lourdes, Josune, Mari Nati, Jaione eta Eloisa ari ziren Maribi Errasti emaginaren azalpenak adi-adi entzun eta ariketak egiten.

Maribi, zeintzuk dira haurdun dauden emakumeen kezkak?
Anestesia Epiduralaren kontuarekin, adibidez, oso kezkatuta ibiltzen dira. Minari beldurra diote eta.

Zer deritzozu zeuk?
Mendaron jartzen ari diren epidurala ez zaigu beste mundukoa iruditzen: emakumeak ezin du ezer sentitu eta, batzuetan, ezin izaten du lagundu. Etzanda egon beharra dauka, ezin duelako zutik egon eta ibili. Grabitatearen laguntzarik eta ibiltzeak dakarren mesederik gabe gelditzen da.
Badago beste epidural bat, Basurton eta ipintzen dutena eta horrekin emakumea gai izaten da zutik ibiltzeko eta, hori, oso interesgarria da. Iritsiko da Mendarora ere. Ondo emandako epiduralak mina eragozten dio emakumeari, baina egon besterik ezin dute egin; ezin dute lagundu.

Ez eskatzekorik esaten diezu?
Ez, ez; nik ez daukat horretan sartzerik. Eskatzeko eskubide osoa dute eta ondo jar diezaieten ere bai, jakina; baina hori ez da beti gertatzen...

Denei jartzen diete epidurala?
Ez, eskatu beharra daukate eta, gainera, dokumentu bat sinarazten diete gerta daitezkeen arazoen berri irakurri ondoren. Ba-

tzuetan, ipini ezina ere izaten da: bizkarreko arazoren bat edo gaixotasunen batengatik.

Zuk zeuk baduzu esperientziarik?
Ez, ez; nik ez daukat umerik eta dagoeneko berandutxo da. Astakeria galantak iruditzen zaizkit bai 67 urterekin umea izan duen emakumearen kasua eta baita kazetari ezagun horrena ere, bikiak izan dituenarena. Gauzak, bere garaian!

Epiduralak ematen al du arazorik erditzean?
Beno, amak ez du ezer sentitzen eta erditze "dirijitua" izaten da. Amak ez du bultza egiteko gogorik sumatzen; gorputzak ez dio noiz bultza egin esaten eta asko eta asko ondo jaiotzen badira ere, sarritan umeari irteten lagundu egin behar zaio zenbait instrumenturekin.

Erditzearen ondoren, zer?
Etxera itzultzen direnean bisitan joaten gara. Batzuetan, nahiz eta aurrez azaldutako gauzak izan, zalantzak eta izaten dituzte titia emateko orduan eta baita puntuen inguruko arazoak ere.

Arnasa hartzen ere irakasten diezu; azaldu horren abantailak.
Arnasa ondo hartzen ikastea ezinbestekoa da. Batzuetan, jakin arren, urduri jartzen dira eta erditzen laguntzen dien emaginak gogorarazi behar izaten die. Baina oso garrantzitsua da arnasa kontrolatzea.

Zein da gehiagotan erabiltzen duzuen hitza: *mina* ala *kontrakzioa*?
Hemen hitz guztiak erabiltzen ditugu eta inolako erreparorik gabe, gainera. Nik ez dut umerik erditu eta oso interesgarria da euren esperientziak besteei zabaltzea. Nik hitz egiten lagatzen diet, baina kontatu nahi dutenaren arabera. Esperientzia txarra izan badu norbaitek eta horixe esan eta esan baldin badabil, moztu egin behar izaten diot besteak ez beldurtzeko. Baina esperientzia ona izan duenari eta jarrera positiboa duenari gustura lagatzen diot azalpenak ematen. Izan ere, beldurtu, nahikoa beldurtzen dira kalean eta auzokoen kontuak entzunda!
Hemen beti esaten diegu mina gauza subjektiboa dela eta bakoitzak bere modura bizi izango duela…

Erditu ondoren ere jarraitzen duzue ikastaroetan?
Eskaerarik balego, egingo genuke. Nik Ermuan ere lan egiten dut eta han eskaintzen da, baina ez da talderik sortzen. Egia esan, oso zaila da; badakizu, titia emateko orduak direla eta bata eta bestea…

Erditze ondorengo depresiorik izaten dute?
Oso normala da erditze ondorengo tristura eta negargura, baina horiek ez dira depresioak izaten. Nik orain arte depresio bakarra ezagutu dut; tratamendu beharreko depresioa esan nahi dut. Baina, bai, horretaz ere hitz egiten dugu, jakin dezaten malkoak erraz ateratzen direla erditze ondorengo egunetan eta gertatu ohi dela.

Eta honenbestez, hantxe utzi ditugu euren ariketak egiten eta egun handirako gorputz eta buru prestatzen. Baina, alde egin aurretik, jaioko direnen izenak jakin nahi izan ditugu; lau mutil eta neska bakarra izango dira: Lander, Asier, Ekaitz, Ixone eta Adei. Izan zaitezte tela ongi ekarriak!!!

kutxa
gizarte ekintza

Mila Fruitategia
-Fruita eta barazkiak
-Elikagai ekologikoak
-Janari izoztuak
-Bertako produktuak
Erdiko kale, 19
Tfnoa: 943 60 33 23

zorion agurrak

ITZIAR
Otsailaren 20an urteak beteko ditxu amonak eta Zorionak berari! Lurdes, Eneko eta Leiren partez matxo handi bat.

MIKEL
Otsailaren 3an 8 urte bete dituen gure etxeko mutil jatorrari Zorionak eta muxu haundi bat familiakoen partez.

EKAIN
Zelako mutil haundixa, 3 urte! Matxo haundi bat aita, ama eta Ainhoaren partez.

BEGOÑA
Gaurkoan, otsailaren 18an 81 urte. Hori meritxua! Holaxe segi urte askuan! Zorionak seme-alabak, ilobak eta etxeko guztien partez.

AIERT
Zortzi muxu handi gure etxeko izarrari! Hau bai jatorra! Etxeko danon partez zorionak, batez ere Aitonamona, gurasuok eta Eñauten partez.

ARANTXA
Urte berri bat bete dezu eta Zorionak andra, ama eta amagiñarreba! Urte askoan jarraitu irrifar alai horrekin!

JOSEBA
Zorionak gure etxeko umiai! Juiziua noiz hartuko dezun zain goz! Etxekuon partez zorionak!!! Eta ez ahaztu pastelak!!!

JOSEBA
Zorionak motel! Iazko eta aurtengo tragoaren zain egongo gara! Urtiak aurrera eta zu gero eta gazteago!

ENDIKA
Otsailaren 10ean urteak bete dituen gure mutilari Zorionak eta muxu asko etxeko denon partez.

ANDONI
Otsailaren 13an 3 urte bete duzunez, zorionak hemendik ere! Zorionak etxeko mutil handiari etxekoen partez eta bereziki gurasoen partez!

LURDES ETA KOSME
Baten eguna joan da eta bestearena badator. Laster tartean egingo degu ospakizuna. Zorionak bixoi!

HOSTAIZKA ETA UNAI
Urtarrilaren 22an eta 23an izan zen egun handia. Zorionak eta zuritoa zor!

SORKUNDE
Zorionak gure Amari, amonari! Segi beti bezala urte askotan. Zorionak etxeko danon partez, batez ere Aiert eta Eñauten partez.

GURUTZEGRAMA



GOITIK BEHERA

1. Nekez aldatzeko. 2. Ikur. Islandia. 3. Jauntxoka. Ipernalden, toldesk. 4. Edozein heri edo zuntz mota ehoz egiten den ekala. Ez erre. Lehenengoa. 6. Judu-gezteleria. Argi, hitz elkartzeko. 6. Hitzen jatorriaz eritzen den filologiaren adarra. 7. Heizen hori. Tanorea. Bulisa. 8. Hitz. Arbenikoa. Nauka. 9. Toka, nazazu. Sustral. 10. Enil. Bokal bikoitza.

EZKER ESKUIN

1. Aztako lehen egunа. 2. Letho bdidak. 3. Ematen du. Gabezia. 4. Ezezagun. Lehen hiak. 6. Emaitzuz, gorotza. Naguko jantzia. 6. Bihi. ...egin, agur egin. Tona. 7. Behor berea. Zintzo. Zuren hori. 8. Kontzonantea. Igaroaldia. 9. Bautzango herria. Aldarruntziz, iridiua. Gipuzkoako herria. 10. Libertatea.

SOLUZIOAK

Eskor-eskabe. 1. Aldakorra. 2. Lehiaketak. 3. Dituk. Ezo. 4. Arantzmo. Ab. 5. Ka. Arrantzale. 6. Ale. Oiek. T. 7. Ibai. On. Zu. 8. T. Ingurua. 9. Zia. Ri. Ala. 10. Aldaketaurre.

Gezur bainoz: 1. Aldakorra. 2. Bainoa. 15. 3. Tto. Bake. 4. Bainoa. Ar. A. 6. Ladino. Art. 6. Elimotxgile. 7. HL Oreina. 8. 8. Ea. Ale. Neu. 9. Nezak. Zain. 10. Aldaketu. Ale.

argazki zaharrak

«ESCUELA DE HOGAR» kurtso bukaera, 1965. MOZORROETAN 1. SARIA

Ezkerretik zutik: Narcisa Urreizti, Maite Urreizti, Mª Karmen Ulazia, Mª Luisa Berriozabalgoitia, Rosarito Rementeria, Arantza Eizagirre eta Mª Loli Urreizti.

Umeak: Mª Sol Ulazia, Agurtzane Arrasate, J.A. Illarramendi, Arrieta, Mª Angeles «Kalala», M. Olazabal, Mª Sol Arrieta, Joseba Odriozola, Lurdes Illarramendi, Genotxu Odriozola, Karmele Andonegi eta Arantza Belaustegi.

ANDRAK ETA UMIAK

Goitik hasita: Sofia Garcia, Nati Urreizti, Angelita Urreizti, Juanita Urreizti eta Arantzazu Lizardi. Behean: Mª Carmen Reyes, Ramonita Elesgarai, Jose Antonio Elesgarai, Manolita Elesgarai, Jose Juan Lizardi eta Jose Agustin Lizardi.

ARANTZA ITUARTEk lagatako argazkixa

IÑIGOBELEN
kurrde 3 - tfnoa. 943803701
argazki lanak
erretoke digitala
fotokopiak zuriboltzan/kolorean
euskal preso eta iheslariak etxera

Etxean argazki zahar bat aurkitu duzula...
erakutsiezu mutrikuar guztiei!
KALAPUTXIn
Luardo etxea, behea - Barrenkale, 12 - Tel. 635748393
kalaputxi@topagunea.com

KALAPUTXI **egiten parte hartu nahi baduzu, deitu 635748393 telefonora. Gustura hartuko zaitugu!**

OTSAILAK 20, domeka

Umeentzako mendi-irteera: Txitxiburduntzi
Eskola Kirolak antolatuta

OTSAILAK 22, martitzena

IPUINAREN ORDUA OIHULARI KLOWN TALDEAren eskutik
Zabiel kultur etxeko aretoan, arratsaldeko 5etan.

OTSAILAK 25, barixakua

Zinea helduentzat: MAR ADENTRO
Zabiel kultur etxean, gaueko 22:30etan

MARTXOAK 4, barixakua

Zinea helduentzat: Stanley Kubrick zikloa
Filmea: LA NARANJA MECÁNICA
Zabiel kultur etxean, gaueko 22:30etan

MARTXOAK 5, zapatua

ANTZERKIA: Nora hoa, neska!
Zabiel kultur etxean, arratsaldeko 8etan

MARTXOAK 6, domeka

Umeentzako mendi-irteera: Motroio
Eskola Kirolak antolatuta

Helduentzako mendi-irteera: Cruz de Métrico (Miranda de Ebro)
Burumendi Mendi Elkarteak antolatuta

MARTXOAK 8tik 18ra

EMAKUMEA ELIZAN karikatura erakusketa
Egilea: Pablo Daniel Sanaguano
Zabiel kultur etxean, arratsaldeko 6etatik 8ak arte
Parrokiak antolatuta

MARTXOAK 11, barixakua

Zinea helduentzat: Stanley Kubrick zikloa
Filmea: LA CHAQUETA METÁLICA
Zabiel kultur etxean, gaueko 22:30etan

MARTXOAK 13, domeka

Umeentzako mendi-irteera: Ibilaldi neurtua
Eskola Kirolak antolatuta

MARTXOAK 18, barixakua

KORRIKA MUTRIKUN
Debako zubitik Katetxeraino
Arratsaldeko 16:30ak aldera

Zinea helduentzat: LABURMETRAIAK
KIMUAK ZIRKUITOA
Zabiel kultur etxean, gaueko 22:30etan

MARTXOAK 19, zapatua

Musika-kontzertua: GONZALO TEJADA “SPECIAL TRIO”
Santa Catalina komenduan, arratsaldeko 8etan

OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 6ra

Mutrikuko Argazki Taldearen ARGAZKI ERAKUSKETA
Zabiel kultur etxean
Astegunetan, arratsaldeko 19:00-21:00 ordutegian
Zapatu-domeketan, eguerdiko 12:00-14:00 ordutegian

ZINEA EUSKARAZ
KIMUAK 2005

Euskara
Elkarteen
film laburren
zirkuitua

korrika aek
Euskal Herria euskalduntzen

ni ere bai!

DURANGA-BILBO '05

ZABIELEN,
martxoaren 18an
gaueko 10:30etan

Ondoren, hizketaldia
Angel Burgañarekin

Otsailaren 17tik martxoaren 23ra.

OSTERTZ
IÑIGO KINTANA
IÑAKI BERAETXE

AMNESIAK
ANGEL BURGAÑA

AMUAK
KOLDO ALMANDOZ

EL SALTO DE BEAMON
ANE MUÑOZ

LEPOKOA
SAFY NEBOOU

europear itun honi



esan behar diogu

> autodeterminazio eskubidea ukatzen duelako
> hizkuntza eta kultura dibertsitatea ukatzen duelako
> eskubide sozialen aitorpena jasotzen ez duelako
> lana, osasun publikoa, etxebizitza erosoak aintzat hartzen ez dituelako
> genero berdintasuna bultzatzen ez duelako
> nekazaritik gabeko nekazaritza bultzatzen duelako

Anima zaitez eta bozkatu!

Otsailaren 20an esan EZ!

EA batasuna ELA LAB ehne